

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

71/III/20

Egunak bezala gauak ere ez dira tormentua besterik zuretzat. Ez zara atsedena hartzeko gauza. Egoeraren mende zaude, eta ezin duzu gainetik kendu. Denboraren kontrako lasterketan bezala, bidean aurrera egin behar duzu. Egunsentiaren zain zaude; irrikan, eguneko galdeketa bukatuta, ziegara lehenbailehen itzultzeko. Atzean utzi nahi duzu dena. Koltxonetan etzanda, eskuak garondoan, goiko leihora begira zaude argia noiz egingo. Ezin duzu lo hartu. Gau asko eman dituzu insomnioaren eraginpean. Burmuinean metatuta daukazu logalea, eta minaren eraso sentitzen duzu, ziztaka, pum, pum, pum, leherketa txikitan bezala.

Hutsaren sentsazioa daukazu buruan, eta eromena igarri dezakezu ate joka. Begiak itxi orduko, abstrakzioak, fantasiak, aurpegiarik eta islarik gabeko irudiak agertzen zaizkizu ilunpetan, eta hondorik gabeko putzuan behera galtzen dira denak etengabe. Ihesi doazkizu, baina zehatzagoak bihurtzen zaizkizu batzuetan, eta aitorpenaren zenbait alderdi sumatu ahal izan dituzu zeure gogoan, ordenarik gabe, eldarnio nahasian. Inguruarekin bat datozen ikuspen haluzinagarriak dira, arrotzak, izugarriak; izan ere, aztoratuta zaude, zure burua ez dabil behar bezala, eta beldur zara itxialdia luzatuz gero ez ote zaren erortzeko bidean sartuko. Errealitateetik ihesi ematen du zure kontzientziak, baina egoera aztertzeko eta zure jokaera gobernatzeko gauza zara oraindik.

Egun berriarekin batera datorkizun galdeketari begira, aurreko sentsazioek hausnarketa zorrotzagoei egin diete leku, eta aldeztu aurretik ikusten, neurriak hartzen, zer galdetuko dizuten asmatzen egin dituzu ahaleginak. Azken adierazpenei erreparatu diezu; jende ezaguna, xehetasunak, gertaerak gogoratzen saiatu zara; nahita nahastu dituzu errealitatea eta fikzioa, eztabaida politikoak, data faltsuak, baina modurik komenigarrienean babestu duzu beti zeure burua.

Alferrik ote zabiltzan egin zaizu azkenean; izan ere, gai gehienak atera direlakoan zaude, eta ez dakizu inspektorea zein muturretatik abiatuko den gaur. Zirkulua itxi da, zure militantziari buruzko azterketa egin dago. Atxilotu ondoko lehen egunak gogoan, inspektoreak jarraitutako bideari erreparatu diozu; Bizkaian emandako denborari buruz egin zizun galde, errefuxiatu politikoa zinela egiaztatu zuen gero, Andoaingo garaia atera zituen ondoren, borrokari nola ekin zenion argitzeko, eta azkenik, urratsez urrats, Bilbon erori arteko kontuak aletu behar izan dituzu egunak joan eta egunak etorri.

Aitorpen koherentea egin diozu; ez duzu uste zure antzezpenak susmorik eragin dionik orain arte. Zer gehiago nahi izan lezake?

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

Erabat argitu gabeko edo ukatutako alderdi zehatzak aterako ditu beharbada mahai gainera. Zure ardura politikoa, pistola, Begoñako pisu faltsua, bitartekaria, ekintza armatuak... etorri zaizkizu gogora. Tartean izan zarela jakingo balute? Gainbehera etorriko litzateke hainbeste denboran eraikitako dorrea... Galdera horrek ez dizu bakerik ematen, larritu egiten zaitu. Kezka horrekin segitu beharko duzu Basauriko kartzelara eraman arte, eta han ere ez zara erabat seguru egongo.

Ziegan zaude oraindik ere hausnartzen. Bi ordu joan dira eguna argitu duenetik. Eskuak bizkarrean, burumakur, hiru pauso eman ondoren buelta, oinkadaren luzea kalkulatuta daukazu dagoeneko, paretaren kontra ez jotzeko. Ate metalikoaren hotsa irudituz zaizu halako batean; beraz, burua berehala altxatuta, atetik hurbil jarri duzu belarria. Norbaiten urratsak entzun dituzu pasilloan barrena nola datozen. Aulkian eseri zara lehenbailehen, eta itxaron egin duzu. Bi buelta eman ditu giltzak sarrailan, eta atea zabaldu dizute ondoren.

–Goazen! –agindu dizute.

Bi polizia dira, eta goiko solairura eraman zaituzte. Atea zabalik, zure zain dago inspektorea, eta elkarrekin sartu zarete gelara. Orain arteko gelak baino txikiagoa da, eta bulego lanak egiteko prestatuta dago. Emakume bat makinaz ari da idazten.

–Hago pixka batean... –esan dizu inspektoreak–, berehala natorrek.

Idazkariarekin bakarrik gelditu zara. Aurrera egin duzu, bizkarra ematen dizula zaude. Begiratu ere ez dizu egin, eta tekleatzen jarraitu du etengabe. Atzetik begiratuta, ile luzea daramala ikusi duzu, beltzarana, sorbaldaraino; tindatua seguru asko. Jertse urdin iluna soinean, alkandoraren lepo zuria dauka agerian. Gona ere urdina darama, eta oinetan, berriz, zango-erdirainoko botak, takoi finekoak. Azazkalak, Olivettiaren tekla zaratzatsuen gainean dantzan, gorri minez margotuta dauzka. Ezin izan diozu aurpegia ikusi, baina gaztea ematen du.

Inguruari begira, atzean metro erdira daukazun leihoa ikusi duzu burua itzulita. Itxita dago, baina ustekabeen harrapatu zaitu. Kristalaren atzean bertan ikusi duzu kalea, pertsianaren tarteetan barrena.

–Ostia! –esan duzu isilpean, aurkikuntzak asaldatuta.

Ezkutuan gorde nahi duzu harridura, eta burua itzuli duzu, poliki, idazkariak leihora begira-begira harrapa ez zaitzan. Ez daukazu

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

zertan kezkatu; paperaren gainean azaltzen ari zaizkion letretan murgilduta dago, bertan zaudenik ere jakingo ez balu bezala.

“Kalea...! Kalea...!”, pentsatu duzu aztoratuta.

Eskuarekin ukitzeko moduan daukazu kalea, bertako zurrumurrua entzun dezakezu, eguneroko bizitza ailegatzen zaizu leihoan barrena. Idazteko makinaren tekla-hotsa eteten den bakoitzean, automobilen zarata nagusitzen da nabarmen. Atzera begira, berriz, pertsianaren zirrituetatik barrena saiatsu zara arretaz, eta automobilak...! sumatu dituzu leihoaren ertz batetik bestera abaila bizian.

“Aurreneko solairua duk –atera dituzu kontuak berehala–, oso baxua; aise egin liteke kalera salto”.

Ihes egiteko aukera ari zara hausnartzen. Leihoaren maratilari erreparatu diozu lehendabizi, eta pertsianari gero. Arruntak dira oso; ez dute ez kisketarik ez inolako euskarririk. Asmatuko zenukeela iruditzen zaizu, eta idazkariari begiratu diozu pentsakor.

“Kolpe bat emango banio, eta alde egin? –esaten dizu barrenak emakumearen garondoari begira, aurrean daukazun aulkiaren bizkarrean berme hartuta–. Baina inspektorearen amarruren bat ere izan liteke. Asmo txarrarekin zabaldutako bidea balitz? Kalera salto egindakoan, polizia baldin badago nire zain eta balaz josten banaute?”.

Atetik leihora, eta leihotik emakumearen burura doazkizu begiak erabaki ezinean. Aske gelditzeko aukera daukazu eskumenean, tentagarri, eta galdezka ari zaizu behin eta berriz zure burua:

“Zergatik ez...? Egin ezak salto, eta atera hadi korrika!”.

Ez duzu, ordea, aurrera egin; eutsi egiten dizu zerbaitek. Ezbaiak, zalantzak, zepoan erortzeko beldurrak ez dizu mugitzen utzi. Ahalegin handia egin behar izan duzu aitorpena zuk nahi bezala moldatzeko, eta ez duzu arriskuan jarri nahi atarramentu segururik ez duen abentura batean sartuta. Hamalau egun eman dituzu sufritzen, etengabeko nahigabea, baina tunelaren irteera gertu dagoela uste duzu, eta iltze horrek lurrari lotuta zauzka. Azkenean, izerditan blai, eskuak kendu dituzu aulkiaren bizkarretik, eta saiorik ez egitea erabaki duzu. Idazteko makinak tap, tap, tap... zeure barrutik atera zaitu.

–Hator hona, motel! Eser hadi! –esan dizu inspektoreak sarrerako atea itxi eta gero.

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

Bost minutu eman ditu kanpoan; gehiago beharbada.

–Aitorpena jaso behar dugu –azaldu dio idazkariari bere oharrak ordenatu bitartean–. Prest?

Inspektorea eta idazkaria dauden lekutik aparte samar, bazter batean eserita zaude. Isilik eta burumakur, sorbaldak erorita dauzkazu eta begiak itxita. Aldian behin eten bat, mantso-mantso ari zaio diktatzen. Beste norbaiti buruz ari balitz bezala entzuten dituzu bere hitzak. Irakurtzen hasi denetik ez diozu harridurarik erakutsi behin ere, ez keinurik; etsi eta goibel, errendituarena egiten saiatu zara. Eskuak, ordea, belaunen gainean, burdinaz lotuta, ohi baino gorriago dauzkazu. Bihotz-taupaden antzeko mugimendu txiki bat, antzemanezina ia, sentitzen duzu behatz-muturretan ireki eta ixten. Odolaren presioak eragindakoa gorabehera hori da zure asalduraren adierazgarri bakarra. Arretaz, belarriak zorrotz, inspektorearen ahotik ateratzen den hitz eta esaldi bakoitzaren ondorioak neurtu nahi dituzu. Xelebrea gertatu zaizu “marginado” hitza erabili duenean zure berri emateko; baina “dicente” deitu dizunean ere, baina “causa nacionalista”, “organización”, “movimiento obrero” ozen esaten entzundakoa arraroa egin zaizu oso. Aitorpena bide onetik doa, oraingoz behintzat. Otsaila bitartean Iparraldean egon zinela zurrizko datu faltsu bat eman zenion, zeramika-lantegian jardun zenuela ordura arte. Ez diote garrantzirik eman; ez dute egiaztatu ere egin.

Ezin duzu entzundakoa sinistu. Zoragarria! Aitorpenean, lerroz lerro, zure irudimenean pixkana-pixkana sortutako azalpenak ari dira ateratzen.

“Arrietak Gorlizera daraman aholkulari sindikal horrek benetakoa ematen dik”, esan duzu zeure kolkorako pozik.

Orain arte bezala geldi-geldi segitu duzu, beste nonbait bazeunde bezala, baina barruko aztoramena gainezka egiteko zorian igarri duzu. Eskueta behatz-muturretan sentitzen dituzun taupada txikiak ez ezik, menderatu ezin duzun tik bat ere jarri zaizu hanketan. Ohartu berria zaude, eta kontrolatu egin behar duzu. Ez duzu ustekabeko xehetasun hori erakutsi nahi. Ahaleginak egin dituzu oinei eusteko, baina ez dizute kasurik egiten eta nahi gabeko keinuak gero eta maizago egiten dizu ihes.

Inspektorea, burua paperen artetik aterata, begira-begira gelditu zaizu. Isiltasunak ohi baino gehiago iraun du. Zerbait ari da gertatzen, eta ez dakizu zer den. Urduri zaude. Burua altxatu, eta inspektorearen begiradarekin egin duzu topo.

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

–Ez al duk oraindik gogoratzen Begoñako pisuaren helbidea? –  
galdetu dizu bat-batean.

–Ez, ez dakit non dagoen. Benetan esaten dizut –erantzun  
dionzu, aurpegian ikara nabari.

–Egidazu deskribapena berriz.... Arin! –esan dizu bere  
paperetan murgilduta.

Aurrekoan ez zenuen edonola asmatu. Etxebizitza jakin bat,  
benetakoa, Sestaokoa hartu zenuen erreferentzia gisa. Solairua  
besterik ez zenion aldatu. Behe-barrutik lehen eskuinera eraman  
zenuen; oso trikimailu erraza.

Egun hartako galdeketan eman zenizkion xehetasun berak  
erabili dituzu deskribapena egiteko. Inspektoreak, paperak meta txiki  
batean antolatu ondoren, bere hitzaldiari jarraitu dio:

PREGUNTADO para que diga a quién de los asistentes  
perteneían las pistolas ocupadas, reseñadas anteriormente...  
MANIFIESTA:

–Zer daukak esateko?

–Esan dizut lehenago ere, pistolei buruz ez dakit ezer.

–Ondo zegok –eman du amore, eta zera esan dio idazkariari–.  
Idatz ezazu: que no sabe a quiénes pertenecen.

–Beste modu batean egingo diat galde –egin du berriro atzera,  
eta zera esan dio idazkariari berriro–: Idatz ezazu.

PREGUNTADO para que diga si no es verdad que el dicente era  
portador de una de ellas, concretamente la de la marca Astra,  
que llevaba entre la camiseta y el pantalón, a la altura de la  
mano izquierda, la cual le ha dejado unas manchas de óxido en  
la citada prenda MANIFIESTA:

–Era horretan badirudi neuk neramala armetako bat, eta hori ez  
da egia –egin dionzu aurre hitz-totelka–. Ez dut galdera hori onartzen.  
Aldatu ezean, ez dut aitormena sinatuko.

Badakizu alferrik ari zarela, baina jasota utzi nahi duzu nolabait,  
axola handikoa izango balitz bezala zuretzat. Ez da, gainera, garrantzi  
gutxikoa –urtebete eta sei urte arteko kartzela-zigorra–, baina beste  
zerbaitek kezkatzen zaitu batez ere: armak bitarteko, orain arteko  
aitorpena desitxuratuta gelditu litekeela.

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

–Galdera neuk egin bezala agertuko duk –eutsi dio bereari inspektoreak–; gustatzen ez bazaik, ziegara itzuli beharko duk, eta bihar galdetuko diat berriz, edo etzi, edo beste edozein egunetan. Heuk ikusi.

Eskuak belaunetan, mahaiaren ertz batean eserita, desafiozko begirada zorrotza antzeman diozu.

Alde egin nahi duzu ahalik lasterren inspektorearen aurretik. Denborak zure kontra joka lezake, eta agerian gera liteke aitorpenaren barren faltsua. Aurre egiteko indarrik gabe gelditzeko zorian zaude gainera.

–Konforme –eman duzu azkenean amore–, baldin eta gai horri buruz nik orain arte esandakoa zehatz-mehatz jasotzen baduzu, hau da, ez dudala sekula pistolarik eraman, ez dudala horretara behartzen nauen ardura politikorik, ez nagoela indarkeriarekin ados, eta elastikoa, azkenik, errefuxiatu politikoek Baionan daukagun komuna batean hartu nuela.

–Ondo. Ados...

MANIFIESTA: que nunca ha llevado pistola, ya que no está de acuerdo con los actos violentos y no tenía en el “Interior” responsabilidad tal como para llevar un arma de fuego. En cuanto a las manchas que se observan en la camiseta del dicente a la altura de la mano izquierda, alega que: esta prenda la cogió de la casa de todos los refugiados políticos en común en Bayona, Residencia Mendi-Adur.

PREGUNTADO para que explique el contenido de los informes que aparecen en el cuaderno señalado anteriormente y en el que se trata diversos temas, tanto de las operaciones “Botella” y “Roberto”, así como de la situación y proyectos de la organización de los distintos Herrialdes del “Interior”,

MANIFIESTA:

Que su misión con respecto a los mismos, era la de traducirlos ya que solían ir escritos en vascuence, ordenarlos y pasarlos a “REY”; y que le llegaban a través de un enlace con el “Interior”, que los depositaba en la Residencia “Mendi--Adur”, a nombre de “MENTXAKA”, del que desconoce su identidad.

“...del que desconoce su identidad...”

Tiro baten moduan entzun dituzu azken hitzok belarri barruan.

“Ondo entzun ote diat?”, egin duzu galde pozik.

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

Esaldi horrek zure aitorpen osoa laburbiltzen du nabarmen. Ez, ez da zure irudimenaren amarru bat izan. Hasperen egin duzu etenka sakon-sakonetik. Hainbeste denboran gordean edukitako itolarria ari zara bat-batean kanpora botatzen.

–Zuzen jaso diat heuk esandakoa, ezta?

Baietz adierazi diozu buruarekin.

–Ba al daukak beste zerbait esateko? – galdetu dizu inspektoreak.

–Irakurri al dezaket? –esan diozu ahotsaren dardara kontrolatu ezinik.

Inspektoreak, eragozpenik jarri gabe, bederatzi orri eman dizkizu. Espazio bakarreko tartean idatzita daude, eta metatu egiten zaizkizu letrak begietan. Dantzan ari zaizkizu eskuaren ikararekin batera. Ikusmena lehenengo lerroetan finkatzen saiatu zara ACTA-DECLARACIÓN DE JOSÉ RAMÓN GOICOECHEA SORONDO... baina bueltaka dabilkizu dena, eta zorabioa egin zaizu.

–Ez nago ondo –esan diozu–. Zaude pixka batean, mesedez.

Minutu pare bat eman duzu burua eskuen artean, eta gero, begirada bat bota diozu aitorpenari gaineratik. Inspektoreak esandako hitzak zehatz jasota daudela ematen du, eta prest zaude izenpetzeko. Alde egiteko irrikan zaude. Ziegara itzuli nahi duzu lehenbailehen.

Que no tiene más que decir y una vez leída su declaración la encuentra conforme con lo manifestado firmándola, con el Señor Instructor y conmigo de lo que como Secretario Habilitado CERTIFICO.

Eskua ikaran, sinatu egin duzu behingoz; azken orrialdearen behe aldean lehendabizi, eta ondoren, alboan, gainerako beste zortzietan banan-banan.

Ziegako atea itxi bezain laster, salto bat eman eta, eskua zabalik, kolpe bat eman diozu paretari indarrez. Barrez ari zara, eta sinatu egin diat... sinatu egin diat esaten duzu behin eta berriz isilpean. Pozak zorutzen, urduri, zementuzko etzalekuan eseri zara, eta konbultsio bizi batek harrapatu zaitu. Emozioen zirrara kontrolatu ezinean, nerbioak jota zaude. Giharrak dar--dar, arnasa estu, imintzioka, ezin izan diozu negarrari eutsi.

## MENTXAKAREN AITORPENA: sinadura

–Ez zegok sinisterik...! Ez zegok sinisterik! –esaten duzu alde batetik bestera balantzaka.

Indar handia egin behar izan duzu emozioak gobernatzeko, eta azkenean, hainbesteko tentsioa eraman ezinean, eztanda gertatu da, hesi guztiak erori dira, nerbio-sistemak gainezka egin dizu. Minutu batzuk pasatu ondoren, pixkanaka, gorputza lasaitzen hasi eta arnasa bere onera itzuli zaizu. Paretaren kontra zaude orain, erabat geldu. Istant bat eman duzu horrela, burua altxatuta, sabaiari tinko begira, eta malko lodiren bat sentitu duzu masailetik behera irristaka. Ikarak eta logaleak eragindako buruko mina gutxitzen ari zaizu. Gero eta arinago sentitzen duzu burua, lasaitasun izugarria, sekulako atsedena. Koltxoiaren gainean etzanda, begiak itxi dituzu, eta arian-arian, zentzumenak apaltzen hasi zaizkizu. Azkenean, hainbeste egun esna eman ondoren, loak hartu zaitu.

*Mentxakaren aitorpena, 255-265 or.*